

ETA BAT-BATEAN, HAUR HURA

Beñat GAZTELUMENDI

Apirilaren 16tik 23ra bitartean Sardinia, Kurdistan eta Herrialde Katalanetako ahozko kantu inprobisatuen berri izan dugu Euskal Herrian. Hona hemen Bilbo, Hernani, Donostia, Iruñea, Markina-Xemein, Uztaritze eta Aramaion egindako bidaiaren kronika posible bat.

Demagun erratz bati kantari hasi zarela bertsotan: zure lagunak jende normalak egiten dituen gauzak egiten ari direnean zure moduko batzuekin joaten zarela eta arratsaldea pasatzen duzula eskuak poltsikoetan sartuta, ideiak eta hitzak lau oinak osatzeko eman dizuten paperaren moduan tolestatu nahian. Eta bertso-eskolatik ateratakoan lagunak galdetzen dizutela non egon zaren, zergatik joaten zaren hara. Eta zu ahaleginduko zara azaltzen esatera iritsiko ez zaren hori esatera iritsi nahiak erakartzen zaituela; erratzaren aurreko lagunarte hark erakartzen zaituela, handik kanpo inork garrantzitsutzat hartzen ez dituen zure ideiak entzun nahi dituen jendea aurkitu duzula, zure ideiei kontrapuntuak bilatzen dizkiena, zure argumentuak fintzera bultzatzen zaituena.

Demagun urteak igaro direla eta zu izan zinen haur hark oinetakoak beti lotuta eramaten dituela orain, eta korapilo berriak aurkitu dizkiola lehen hain natural egiten zuen horri. Demagun, erratz aurreko lagunartean gain, ohartu dela bere inguruan ez direla asko euskaraz hutsez funtzionatzen duten eremuak; ohartu dela jendeak gauza garrantzitsuak esan ez, idatzi egiten dituela. Ikasi duela historia ofizialak idatzia behar duela izan, eta ahoz aho iritsi den hori historia ofizial horren ertza dela; kondairak, ipuinak, kantuak... Garrantzirik ez daukan hori, alegia.

Eta demagun 2003a dela eta zu izandako haur hura Euskalduna jauregira joan dela. Entzun duela munduan badirela beste hizkuntza batzuetan ari diren bertsolariak, zortziko handiaz eta zortziko txikiaz gain segidillak eta dezimak eta bestelakoak egiten dituztenak. Eta ulertu ez arren barru-barruan geratu zaizula hainbeste herrialdeetatik Euskal Herrira etorritako inprobisatzaileen irudia, oholtzan denak elkarrekin azken agurrak kantatuz, nor bere hizkuntzan baina "Aita-semeak" doinuan.

BAKANAK BAI, BAKARRAK EZ

2016. urtera iritsi gara, eta geroztik ez da dimentsio horretako ahozko kantu inprobisatuaren topaketarik antolatu Euskal Herrian. Baina bertsolariak ibili dira hara eta hona; Sardinian, Kuban, Kolonbian, Katalunian, Galizian eta beste hainbat lurraldetan ibili dira.

Zergatik, ordea, mundua ezagutu behar hori? Bertsoak badu bere lurra, bere hizkuntza dauka. Euskaratik eta euskaraz egiten da, Maialen Lujanbiok behin kantatu zuen bezala; hizkuntzatik abiatzen da bertsolaria hitzak bihurritzen dituenean. Eta inprobisatzeko Euskal Herrian daukagun moduak Euskal Herrian dauka fun-



Goiko irudian, Iruñeko saioko une bat, eta, behekoan, Bilbokoa. Bertan, Maddalen Arzallus azalpenak ematen.

Conny BEYREUTHER | XDZ



tzioa, hemen dauka zentzua. Jendartea aldatu ahala aldatzen baita kantatzeko, oholtzan egoteko eta pentsatzeko modua ere. Orduan, zergatik besteak ezagutu behar hori?

Bertsolaritzaren hizkuntza bakarra ez delako euskara. Ahoz, kantatuz eta inprobisatuz egitea bera ere hizkuntza bat delako, eta, beste hizkuntza batzuetan izan arren, munduan asko direlako ahoz, kantatuz eta inprobisatuz aritzen direnak. Jardun horietatik ere ikas dezakegu transmisiorako darabiltzaten estrategiez, gizartean duten presentziaz, gaiak lantzeko duten moduez edo, besterik ezean, elkarrekin esperimentatzeak denoi sortzen digulako halako betetasun bat.

Horregatik antolatu da aurten “Europa bat-batean” ekimena: ezagutzeko gogoia daukagulako eta gure burua ere erakutsi nahi dugulako datozenen aurrean. Andoni Egañak proiektuaren aurkezpen egunean esan bezala, bakanak gara, ez bakar-rak ordea.

UDAZKENEAN LEONEN ETA KATALUNIAN
Hiru fasetako proiektua da “Europa bat-batean”. Udazkenean, Leonen eta Katalunian izan ginen eta Kanaria uharteetako,

Lerroon gainea, ezkerretara, Aramaioko saioan jasotako unea, eta, eskuinetara, Uztaritzeko saioa. Ahopeka eta hizkuntza desberdinetan emandako azalpen ugari izan dira saio bereziotan. Eta adin guztietako jendea bertaratu da.

XENPELAR DOKUMENTAZIO ZENTROA

Bertsolaritzaren hizkuntza bakarra ez delako euskara. Ahoz, kantatuz eta inprobisatuz egitea bera hizkuntza bat delako, eta, beste hizkuntza batzuetan izan arren, munduan asko direlako ahoz, kantatuz eta inprobisatuz aritzen direnak

Bitxia da bertsolari batentzat Euskal Herritik kanpo aritzea: bertsotan hasi eta publikoari begiratzean ohartzea ez gaituztela ulertzen. Eta etena ez da hizkuntzari lotua bakarrik. Bertsolariok esku hutsik ateratzen gara mikrora



Galiziako eta Herrialde Katalanetako inprobisatzaileak ezagutu eta haiekin aritzeko aukera izan genuen.

Bitxia da bertsolari batentzat Euskal Herritik kanpo aritzea: bertsotan hasi eta publikoari begiratzean ohartzea ez gaituztela ulertzen. Eta etena ez da hizkuntzari lotua bakarrik. Bertsolariok esku hutsik ateratzen garelako mikrofono aurrera, musika-tresnarik gabe kantatzen dugulako eta oso murrizta delako oholtzan hartzen dugun lekua. Eta euskaraz egiten dugulako, gainera. Harrituta begiratu digute Leonen eta Katalunian, eta hala ikasi dugu ez dela nahikoa mikrofo-

nora atera eta kantatzearekin: testuingurua ere eskaini behar dela, zergatik kantatzen dugun kantatzen dugun moduan, zergatik ez garen mugitzen, nola antolatzen ditugun saioak, nola lantzen ditugun gaiak...

Udazkenean ikasitakoarekin iritsi ginen proiektuko bigarren fasera: apirilaren 16tik 23ra bitartean Euskal Herrira ekarriko genituen Sardinia, Kurdistan eta Herrialde Katalanetako inprobisatzaileak. Eta bagenekien Euskal Herritik kanpo sentitu genuena sentituko zutela haiek ere hemen.

ITZULPENEI BUELTAKA

Itzulpenak izan ziren gure lehenengo kezka: nola itzultzen da bertso bat beste hizkuntza batera? Hizkuntzatik datorren jardun bat, hitz-jokoetan eta erriman oinarritzen dena, itzuli al daiteke? Ezer galdu gabe ez. Ondorio horretara iritsi ginen. Ulertu nahi eta ezina etengabea izango zela; inprobisatzaileak esan bai baina aditzera eman ezinean ariko zirela. Itzulpenak protagonismo nabarmena izango zuela jakitun, oholtza gainera eramatea erabaki genuen: ikus-entzuleek ere ikus zezatela zeinen hauskorra eta



Goian, Arrate Illaro eta Maialen Lujanbio, Hernanin, kantuan. Lerro hauen gainean, Aramaioko saioko une ederra. XENPELAR DOKUMENTAZIO ZENTROA

konplexua zen inprobisatzailearengandik bereganako zubi hori.

Erritmoa zen beste kezka: nola itzuli itzulpenak inprobisatzaileen jardunean etenik sortu gabe. Bertsolaritzan bezala, ezagutzen ditugun ahozko kantu inprobisatu gehienetan estimatua izaten da kantuan ari direnen arteko erantzun azkarra, erritmo bizia. Bertsotik bertsora itzulpena sartzeak erritmo hori eten egiten du. Horregatik erabaki genuen itzulpenak idatziz egitea ohol-tza-atzeko pan-

Itzulpenak izan ziren gure lehenengo kezka: nola itzultzen da bertso bat beste hizkuntza batera? Hizkuntzatik datorren jardun bat, hitz-jokoetan eta erriman oinarritzen dena, itzuli al daiteke? Ezer galdu gabe ez

Erritmoa zen beste kezka: nola itzuli inprobisatzaileen jardunean etenik sortu gabe. Bertsolaritzan bezala, ahozko kantu inprobisatu gehienetan estimatua izaten da kantuan ari direnen arteko erantzun azkarra

taila handian. Baina bertsoa osorik itzuli arte ez erakustea, inprobisatzailea kantuan ari zen bitartean ikus-entzuleak ez zitezen pantailari begira geratu bat-bateko jardunarekiko arreta galduz.

Garbi geneukan, beraz, itzulpena nola egin nahi genuen. Eta garbi geneukan testuei buruzko itzulpenaz gain jardunari buruzkoa ere eskaini beharko genuela: nor ziren zetozenak, ze egoeratan bizi ziren, ze presentzia zuen jardun inprobisatutako bakoitzak bere jendartean... Baina, nor etorri dira?

SARDINIAKO «CANTADORI»-AK

Mediterraneoaren erdi-erdian kokatutako uhartea da Sardinia. Aurretik ere bagenuen hango inprobisatzaileen berri, bisitan izanak baikinena. Italiara eta sardiniera dira bertako hizkuntza ofizialak, baina, azken urteotan, italierak presentzia handiagoa dauka, gazteen artean bereziki. Sardinian hegoaldea eta iparraldekoa nabarmen bereizita daudela azaldu ziguten, eta sardiniera estandarrik ez dagoela; hizkeran alde handia dagoela uhartearen alde batetik bestera. Han izan ginenean euskara batuaz galdetu ziguten ia bertsolaritzaz adina.

Apirilean bi inprobisatzaile etorri dira gurerara, bi *cantadori*: Simone Monni eta Paola Dentoni. Eta beraiekin batera, bi ahots laguntzaile ekarri dituzte: Stefano Cara eta Michele Deiana. Zer da, ordea, ahots laguntzaileek egiten dutena? *Cantadori*-ei tonua ematen diete. Labur esanda: bertsolari sardinien bertsoa etenez beteta dago. Bertso bakoitzean hiruzpatalu aldiz urrunduko da mikrofonotik, eta tarte horietan atzean dauden ahots laguntzaileek tonua markatuko dute. Atmosfera berezi bat sortzen du honek, eta guri hasieran kosta egin zitzaigun bertsoa zergatik eteten zuten ulertzea. Poliki-poliki ulertu genuen ordea. Kontua da behin eta berriz errepikatzen diren esaldiz osatutako bertsoak direla *cantadori*-enak, gure kopia zaharren modukoak. Eta bertsoaren muina, edukia, ez da esaldien barruan dagoena bakarrik: esaldien ordean aldatuz hitz-jokoak sortzen dira, edo esanahia aldatzen da. Eta joko horrek ere balio artistikoa ematen dio.

KURDISTANGO «DENGÊJ»-AK

Gurean herrialde aski ezaguna da Kurdistan: Irakeko, Siriako, Iraneko eta Turkiako mugek zatitutako lurraldea, mapetan agertu ez arren albistegietan maiz ikusten duguna. Bertako *dengêj*-ak ekarri nahi genituen Euskal Herrira baina, baimen-kontuak tarteko, hasiera batean itzultzaile lanak egitekoa zen Zinar Ala

bakarrik etorri zen. Urteak igaro arren mundua askorik aldatu ez den seinale: 2003an amazigak ekartzekoak ginen, baina haien baimenak ere kontsulaturen batego paper horituen artean geratu ziren.

Zinar Alak, inprobisatu ez arren, Kurdistango ahozko tradizioa zenbait ale ekarri zizkigun. Kurdistango historia ahoz aho transmititu dela azaldu zigun, historia liburu ofizialetan agertzen ez den herri horren testigantzak tradizio horrek gorde dituela, eta bere berri eman nahi zigun, han gertatu dena eta gertatzen ari dena azaldu. Kontatu zigunez, hileta-kantuak, deserriari jarritakoak eta gerra-giroan sortutako lanak dira nagusi, herri baten ahozko tradizioak eta bere unean uneko egoerak duten loturaren erakusgarri.

Azken urteotan, hala ere, bestelako gaiei buruz ere kantatzen omen dute. Gurerera, esate baterako, ezkontza baterako jarritako bertsoak ekarri zituen, eta estribilloa kantatzen ere jarri gintuen behin baino gehiagotan.

«GLOSADOR» ETA «CORRANDISTA» KATALANAK
Azkenik, Herrialde Katalanetatik bi ordezkariak ekarri genituen: Christian Simelio eta Anaís Falcó lehenengo Gerard Díaz musikariarekin, eta Mireia Mena eta Ferriol Macip ondoren Marcel Marimonekin. Frankismo garaian ahozko kantu inprobisatua ia desagertu egin zela azaldu ziguten; ia transmisio-bide guztiak eten egin zirela eta poliki-poliki ekin ziotela berreskuratze lanari orain dela urte batzuk. Pixkana-pixkana jaso dituzte lehengo tradizioaren testigantzak; taillerak (gurean bertso-eskola esaten diegunak) sortu dituzte eta hezkuntzan ere sartu dira.

Zabaldu nahi horrek pisu handia dauka beren jardunean: oholzapeko saio asko egiten dituztela azaldu ziguten, eta entzuleek ere parte har dezaten saiatzaren direla. Saio bukaeran entzule eta artista paperak trukatu egiten dira, eta denak elkarrekin saiatzaren dira inprobisatzen, parez pare. Instrumentuek lagunduta, oso kantu inprobisatu alai eta bizia da katalanena.

HIZKUNTZA, GENEROA ETA TRANSMISIOA
Inprobisatzaile hauek guztiak astebetez izan ditugu Euskal Herrian, eta Bilbon, Hernanin, Donostian, Iruñean, Markina-Xemeinen, Uztaritzen eta Aramaion aritu dira kantuan. Saio bakoitzean bi bertsolari izan dituzte aldamenean, aldiro desberdinak. Elkarrekin kantatzeko aukera izan dugu, elkarrekin doinuak hautatu eta bertso bidezko (eta tartean



Jende dezente gerturatu da txoko desberdinetako inprobisatzaileen jarduna bertatik bertara ezagutzera. Goian, Iruñeko aretoaren itxura ederra. Lerroon alboan, Markinan kalean egindako saioa. Conny BEYREUTHER / XENPELAR DOKUMENTAZIO ZENTROA



itzulpena zuten) elkarriketak inprobisatzeko. Eta ikasi dugu ez dela erraza hain hizkuntza, hain oholztan egoteko modu eta hain jardun desberdinak elkarrekin aritzea, baina lortzen denean sortzen den energia zaila dela deskribatzen. Oholtzan adina ikasi dugu, ordea, oholztapean. Gu bezala hizkuntza gutxitu batean ari diren beste hiru jardunekin aritu gara, eta ikasi dugu hizkuntza gutxituak izateak ez duela esan nahi hizkuntza txikiak direnik (begira katalana, milioika hiztunekin), baina hizkuntzaren egoerak berak sortzen duela atxi-

kimendu berezi bat hizkuntza horretan bizi diren eremuekiko, eta ahozko kantu inprobisatuaren transmisioa oso lotuta dagoela hizkuntzaren transmisioari. Eta ikasi dugu Euskal Herrian eta bertsolaritzan soilik ez, munduko beste hainbat lurraldetan eta jardunetan ere urria dela emakumeen oholta gainerako presentzia, eta emakumeek lekua hartzea ez dela zenbaki kontua bakarrik, oholztan egoteko moduekin ere baduela zerikusia. Eta ikasi dugu ahozko kantu inprobisatuaren familia barruko transmisioa eteten ari dela munduko bazter askotan,

eta estrategia berriak asmatu beharko ditugula hizkuntza desberdinak darabil-tzaten bertsolaritzak geroratzeko. Baina, demagun zu izan zinen haur horrek oraindik ez duela lokarriak lortzen ikasi, ez dituela korapilo hauek topatu. Eta besterik gabe ikasi duela egiten duen horrek sekulako balioa duela. Eta, hala ere, izugarri normala dela. Eta munduko beste bazter askorekin korapilatuta dagoela. Eta uztailean mundu gehiago ezagutuko dituela, “mundua” esaten duenean imajinatu ere egin ezin dituenak.